

# aholku bila

Gorbeia ondoko herri baten  
ola\*barri bat egin ei eban behin gizon batek.  
Indarrean ipini\*nahi izan ebanean...  
oleak zirkinik\*ere ez.

– *Barrabana! Zer jazoten jakok honi?*

Eta egin ahalak egin\*arren,

oleak ez *klin*, ez *klon*...!

Harrituta egozan ugazaba eta olagizon,  
zer egin ez ekiela.

Badinotso olagizon zaharrenak ugazabari:

– *Inpernuko indarren batek*

*jaukok lotuta ola hau...*

*Nik hire lekuan,*

*Gorbeia-ko Supilaur-era bialduko neukek*

*guturiko bat*

*Anboto-ko Señorea-ri aholkua\*eskatzen.*

– *Ondo jeritxat* –erantzun eutsan ugazabak.

Eta gehiagoko barik eurretari<sup>ko</sup> bat bialdu eban,  
gazteena, esandako lekura.

Hantxe egoan Señorea,  
kobako ataka-atakan\*, goruetan\*.

Gure olagizona ikustean

– *Zer dala-ta hona, gizon?* –itandu eutsan.

Ta erantzunari itxaron barik

jesarlekua eskeini eta sagardoa atara eutsan.

Pitxarra ta edontzia urregorritzkoak zirala ikusirik

begiak zabal-zabalik gelditu jakozan mutilari;

zurtz eginda\*gelditu zan

eta berba egitean ere tikili-takala egiten eban.

– *Ola hori* –esan eutsan Señoreak–

*indarrean ipini nahi badozue,*


*urli\*komentuko nagusiagana jo\*behar dozue*

*eta bedeinkatzeko esan.*

Hori entzunda nasaitu egin zan mutila,

eta urregorritzko pitxarra ta basoa

eskuetan harturik



– *Jesus!* –esan eban–

*Hori baino ez badok...*

*Laster jaukagu konponduta.*

Eta *dringi-dringi...*

baso bete sagardo iruntsi eban.

Gero, zutundurik

– *Eskerrik asko!* –esan eutsan Señoreari.

– *Ez daukak eskerrik emon beharrik*

–erantzun eutsan. Eta gero

– *Eroan egizak heugaz pitxar eta edontzi\*hori.*

– *Zer? Zer dala-ta?*

– *Eskuetan hartu dozakanean*

*bedeinkatu egin dozakelako.*

– *Bedeinkatu, nik? Ta, zer?*

– *Bai, izen hori aitatzuz.*

– *Zein izen?*

– *Begira; Kristinautasuna heldu dan ezkerro*

*bera dok orain nagusi Euskalerrian.*

*Nire garaia\*amaitu egin dok.*

– *Amaitu?*

– *Eta ezin nik kristau-ezaugarriarik koban euki.*

*Eroan egizak, bada, pitxar-edontziok*

*eta eurotan edaten doan horri*

*on egin deiala beti.*

Pozik joan zan mutila herrira

eta ugazabari dana azaldurik

komentuko nagusia ekarri

eta ola barria bedeinkatu eban.

Bedeinkatuaz...

deabru talde batek urten ei eban handik

oihuka eta orroaka, astrapalots baten!

Arrezkero, hor ei dabil,

**KLIN-KLON, KLIN-KLON...**

gelditu barik, ola hori.

\* ola = ferrería  
\* indarrean ipini = poner en marcha  
\* zirkin = movimiento

\* egin ahalak egin = hacer los imposibles por  
\* aholkua = buruspidea, consejo  
\* ataka = sarrera, boca de..., boquete

\* goruetan = hilando  
\* zurtz egin = quedar en cuadro  
\* urlia = un tal...

\* –gana jo = recurrir a  
\* edontzi = vaso  
\* garaia = hora, momento